

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuko zortzi kideek karguak hartu dituzte gaur eguerdian

Yolanda Barcina buru duen Gobernu UPNko bost kontseilarik eta PSNko hiruk osatuko dute

Sábado, 02 de julio de 2011

Gaur karguen jabe egin dira Yolanda Barcina buru duen Nafarroako Gobernu berria osatzen duten zortzi kontseilariak: bost UPNk eta beste hiruk PSNk proposatu ditu, iragan ekainaren 21ean bi alderdiek sinatu zuten erabakiari jarraiki.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan izan da gaur eguerdian, eta ehun gonbidatu baino gehiago izan dira. Hasteko, Nafarroako ereserkia entzun dute. Jarraian, Lehendakariaren foru dekretuak irakurri dira, atzo sinatu eta gaur Nafarroako Aldizkari Ofizialaren aparteko zenbaki batean argitaratu direnak. Foru dekretu horietan Foru Gobernu berria osatzen duten zortzi departamentuetako titularrak izendatu dira. Bakoitza irakurri ondoren eta kontseilariak izendatu ahala, karguaren zina egin edo hitzeman dute.

Zehazki, kontseilari hauek egin dute haien karguaren zina: [Álvaro Miranda Simavilla](#) (Ekonomia eta Ogasun kontseilaria), [José Iribas Sánchez de Boado](#) (Hezkuntza kontseilaria), [Marta Vera Janín](#) (Osasun kontseilaria) eta [Lourdes Goicoechea Zubelzu](#) (Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria).

Ondoko kontseilari hauek beren karguak beteko dituztela hitzeman dute: [Roberto Jiménez Alli](#) (Lehendakarietzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria), [Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia](#) (Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria), [Elena Torres Miranda](#) (Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilaria) eta [Anai Astiz Medrano](#) (Sustapen eta Etxebizitza kontseilaria).

Jiménez presidenteordeak eta Torres, Goicoechea eta Astiz kontseilariak euskaraz ere esan dute formula.

Karguaren zina egin edo hitzeman ondoren, Yolanda Barcina Lehendakariak Nafarroako armarrria duen entseina jarri die kontseilari berriei.



Nafarroako Gobernu berriaren taldeko argazkia

Horren ostean, Roberto Jiménez lehen presidenteorde eta Álvaro Miranda bigarren presidenteorde izendatzeko testuak irakurri dira, eta biak karguaren jabe egin dira.

Amaitzeko, Yolanda Barcina Lehendakariak [mintzaldi instituzionala](#) irakurri du eta, ondoren, Nafarroako Jauregiko lorategietan Nafarroako Gobernu berriaren ohiko argazkia egin dute. Ekitaldira gonbidatutakoak, kontseilarien lagunak eta familiako kideak batez ere, Solairu Noblean eskaini duten otamenera joan dira. Argazki ofizialaren ondoren, Foru Gobernu berriko kideak ere haiekin elkartu dira.

Galería de fotos



Alvaro Miranda



Anai Astiz



Elena Torres



José Iribas



Juan Luis Sánchez de Muniáin



Lourdes Goicoechea



Marta Vera



Roberto Jiménez